

2016-09-13 argitaratuta BAOean 175

Bermeon hileta edo omenaldi zibilak egiteko ordenantza

Bermeoko Udalak 2016ko uztailaren 20n izandako Osoko Bilkurak hileta edo omenaldi zibilak egiteko ordenantza hasieraz onartu eban, 2016ko abuztuaren 8an BAOan argitaratu eta jagokon epea igarota, alegaziorik aurkeztu ez danez, behin betiko onartuta gelditzen da, ondoren adierazoten dan moduan:

Bermeon hileta edo omenaldi zibilak egiteko ordenantza

Gure gizartean aniztasun ideologikoa, erlijiosoa eta kulturala da nagusi, gizarte plurala baita, eta ohituren eta ekintza sozialen adierazpenak etengabe ari dira aldatzen. Erakundeek pertsonen eta elkarteen askatasun ideologiko eta erlijiosoa bermatu behar dute eta horretarako muga bakarra legeak ezartzen duen ordena publikoa errespetatzeko beharra da.

Hil ondorengo hileta edo omenaldi zibilak egitea behar soziala da erlijiorik gabe bizitzea aukeratu duten herritarrentzako eta zeremonia duina eta pertsonala eskaintzeko beharrizan horretatik sortu da, hain zuzen, araudi hau, herritar horiek bizitza ulertzeko duten modua errespetatzeko xedearekin.

Herrian bertan elkarren ondoan bizi diren erlijioek hildakoei agur esateko liturgia ekitaldiak egiteko toki edo tenpluak dituzten bezala, Bermeoko Udalak gizartean gero eta eskaera handiagoa duen behar bati erantzun behar dio.

Ordenantza honen helburua, beraz, Bermeoko gizarte zibila osatzen duten familiek, adiskideek, erakundeek edo taldeek beren hildakoak omentzeko edo horiei agurtzeko egin nahi dituzten ekitaldiak baimentzeko arauak ematea da, hala, pertsona horien ekarpenak edo balio etikoak edota gizatiarrak onartzeko.

Edozelan ere, araudi honetan finkatzen den eremua honelako ekitaldi zibilak bideratzeko, hots, hilerriko kapera zaharra, ospakizun erlijiosoak egiteko ere erabili ahal izango da.

I KAPITULUA. XEDEA

1. artikulua

Ordenantza honen xedea Bermeoko udalerriko udal lokalen baimena eta erabilera arautzea da, bertan agur edo omenaldi zibilak egiteko. Hauexek, lehenasuna izango badute ere, orain arte egon den erabilera erlijiosoa bermatuko da.

II KAPITULUA. BAIMENA

2. artikulua

Alkateari edo hori ordezkatzeko duen zinegotziari dagokio hileta edo omenaldi zibiletarako gordetako espazioaren erabilera baimentzea. Horretarako senitartekoak edo dagokionak Bermeoko Udaleko BerHAZ bulegoaren erregistroan eskaera, ordenantza honetako 5. artikuluan zehazten diren agiriekin batera, aurkeztu beharko du.

Hil den unean Bermeoko biztanleen erroldan erroldatuta azaltzen diren pertsonen hileta ospakizun edo omenaldi zibilak soilik egin ahal izango dira.

Baldintza hori betetzen ez duen pertsona baten hileta ospakizuna edo omenaldi zibila egin nahi izango balitz, eskaera aztertutakoan hartuko da egoki iritzitako erabakia.

III. KAPITULUA. PROZEDURA HASTEAN

3. artikulua

Hileta edo omenaldi zibilak egiteko eskaerak Bermeoko Udaleko Alkatetzara zuzenduko dira, eta azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, zehaztutako edozein bide erabili ahal izango da horretarako.

4. artikulua

Hileta edo omenaldi zibilak egiteko eskaeren izapideak egoera horrek beharrezkoa duen berehalakotasun printzipioaren arabera arautuko dira, eta horretarako Alkateak edo horren ordezkari zinegotziak egoki iritzitako neurriak hartu ahal izango ditu.

5. artikulua

Eskaerak derrigorrez Udalak prestatutako inprimakietan egin beharko dira eta bertan zehaztu zein material erabiltzea eskatzen den.

Eskaerarekin batera ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Heriotza ziurtagiriaren kopia.
- Tasa ordaindu izanaren agiria, ordenantza fiskaletan aurrez ordaindu behar dela finkatu bada.

6. artikulua

Eskaerak aurreko artikuluetan zehaztutako baldintzak betetzen ez baditu, eskaera egin duen pertsonari lehenbailehen eskatuko zaio akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko.

IV. KAPITULUA. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA EGITEA

7. artikulua

Hil den unean Bermeoko biztanleen erroldan erroldatuta azaltzen diren pertsonen hileta ospakizun edo omenaldi zibilak udalak aurreikusitako lekuan (hilerriko egokitutako kapera zaharra) ospatzeko eskaera 5. artikuluan zehaztutako dokumentazioarekin aurkezten bada, automatikoki onartuta ulertuko da.

Baldintza hori betetzen duen pertsona bat baino gehiagoren hileta ospakizuna balego, lehenengo egindako eskaeran jasotako ordutegia kontuan izanda, hurrengo eskaera egiten duenak ordutegia moldatu beharko du.

Gainontzeko kasutan hileta edo omenaldi zibila egiteko eguna eta ordua Alkateak edo horren ordezkari zinegotziak zehaztuko du, Idazkaritzak xede horrekin espediente bideratu ondoren.

Udalak, ahal duen neurrian, eskaeran zehaztutako eguna eta ordua errespetatuko ditu, eta eskaerak BerHAZ Erregistro Orokorrean aurkeztu diren ordena hartuko da kontuan horretarako. Instrukzioa eskaerak aurkeztu diren ordena zorrotzean egingo da.

V. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

8. artikulua

Orokorrean eta Bermeoko udalerraren barruan hileta edo omenaldi zibilak hilerriko kapera zaharraren eraikin publikoan egingo dira.

Salbuespenezko kasuetan beste lokal edo gune publiko batzuk ere erabiltzeko baimena eman ahal izango da.

9. artikulua

1.- Udal eraikin bat den heinean, hilerriko kapera zaharraren antolakuntza eta mantenua udalaren esku egongo da.

2.- Ezin izango da inolako instalaziorik edo aldaketarik egin bertan udalak behar den baimena ez badu espresuki eman.

3.- Askatasun ideologikoa errespetatzeko hileta edota omenaldi zibilak ospatzen direnean ezin izango da ikur erlijiosorik egon kapera barruan. Hauexek behin amaituta, orain arte izan den erabilera berreskuratuko da.

4.- Hilerriko kapera zaharrak, hileta zibilik ez dagoan bitartean orain arteko erabilera izango dau eta erabilera horrerri jagokozan ikurrak bertan jarrita egongo dirala bermatuko dau udalak.

10. artikulua

Ahal den heinean, eskatzaile bakoitzak zehaztutako eskaera errespetatuko da, baina aparteko eta presazko beharrian objektibo baten ondorioz, gerta daiteke eskatutakoa ez onartzea.

11. artikulua

Hileta edo omenaldi zibilak astelehenetik zapatara ospatuko dira, eta Udalak gehienez eskaera-orrian jartzen diren baliabideak jarriko ditu.

Hileta edo omenaldi zibilak ospatzeko ordutegia ondokoa izango da:

- Astelehenetik barikura: 9:00 – 13:30, 17:00 – 19:00
- Zapatuetan: 9:00 – 13:30

Domeketan eta jai egunetan, hilerrria zarratuta egongo da, beraz, kapera zaharra ezin izango da erabili hileta zibilak egiteko.

Domu Santuan (azaroaren 1ean eta 2an), nahiz eta hilerrria zabalik egon, ezin izango dira hileta zibilak egin.

Beste ordu batean egiteko eskaera aurkezten denean, eskaera ikusita eta egun horretan dauden ekitaldiak kontuan izanda, erabakiko da.

12. artikulua

1.- Ezin izango da gorpu aurreko hileta zibilik edo erlijiosorik egin, salbuespenik gabe, ordenantza honek arautzen duen esparruan.

2.- Ekitaldiak, gehienez, ordu bat iraungo du eta gunea libre geratu beharko da gehienez ere hurrengo hamabost minututan.

3.- Eskaeraren sinatzaileak bere gain hartuko du orokorrean legedian eta bereziki ordenantza honetan xedatutako betebeharrak betetzen direlako ardura. Horrez gain, sinatzaileak bere esku jarritako lokaletan edota udal materialetan eragindako kalteak ordaindu beharko ditu.

13. artikulua

Une oro, bertaratuen eta eraikin beraren segurtasuna bermatu beharko da. Hortaz,

1.- Udal lokaletan ezin izango da inola ere baimendutakoa baino jende gehiago sartu.

2.- Lokalaren barruan ezin izango da inolako surik piztu, kandelak barne.

VI KAPITULUA. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

14. artikulua

Udal gunearen zainketa egokia bermatzeko, zeremonian parte hartuko dutenek ez dute berrietan kalterik edo galerarik eragin dezakeen inolako ekintzarik egingo, eta udalak lagatako materialari erabilera zuzena eman beharko diote. Udalak egoki iritziz gero fidantza bat eskatu ahal izango du.

15. artikulua

Hildakoaren senitartekoek edo adiskideek Bermeoko udalak prestatutako gunea apaindu nahi badute edo modu bereziren batean egokitu nahi badute, egin ahal izango dute baina ekitaldirako erreserbatutako denbora hori amaitu baino lehen erretiratu egin beharko dute jarritakoa.

Erabat debekatuta geratzen da zoruan, paretetan edo beste edozein elementutan anklajerik, zulorik edo antzekorik egitea, eta udal argindar instalazioetara inolako engantxerik egitea, aldez aurretik ez bada baimendu.

16. artikulua

Eskaera egiten duen pertsonak hileta edo omenaldi zibila egiteko beste espazio publiko bat erabili nahi badu, eskaeran hori ere zehaztu beharko du eta Udalak egoki iritzitako erabakia hartuko du.

17. artikulua

1.- Ordenantza honetan aurreikusten ez den edozein alderditarako, udal arduradunen aginduak hartuko dira kontuan.

2.- Hilerriko kapera zaharrean eginkizun ezberdinak bideratzeko, hilerriko udal langilearen ardurapean geratuko dira bertan egin behar diren aldaketak edota moldaketak, ikur erlijiosoen kentzea eta birjarpena barne.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Bermeoko Udaleko Alkatetzari ordenantza hau aplikatzeko egin beharreko jarduketa guztiak egiteko ahalmena ematen zaio.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko testua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egunetara jarriko da indarrean, eta Udalbatzak berau aldatzeko edo indargabetzeko erabakia hartu arte izango da indarrean.

Bermeon 2016ko irailaren 8an
Alkatea
Idurre Bideguren Gabantxo